



UDALETAKO EUSKARA
ZERBITZUEN TOPAKETAK
www.udaltop.eus



IZENBURUA:

Gizarte aktibazioa eta hizkuntza- ohituren aldaketa Galesen

EGILEA:

Collin H. Williams

DATA:

2018/05/03



Aurkibidea

1. Sarrera.....	3
2. Komunitateetan hizkuntza, erabiltzeko gizabanakoen konfiantza garatzea?.....	11
3. Eremuko ekimenak.....	12
4. Komunitatea Garatzea – Mentrau laith (Hizkuntza ekimena) ekimena.....	12
5. Hiri eremuak – Cannolafannau Cymraeg.....	19
6. Musikaren, IT, kultura, atzeri eta hedabideen eremuan gazteentzat egindako ekimenak.....	22
7. Hitzunekin lotura estua duten hedabideak.....	22
8. Sare sozialak eta komunikazio elektronikoa.....	22
9. Lege-neurriak eta agintaritza legegileak.....	23
10. Gobernuaren Politika Handinahia - “Cymraeg 2050”.....	24
11. Bibliografia.....	29



1. Sarrera

Begi onez ikusten dut, euskaltzaleak aktibatuz eta hizkuntza-ohiturak aldatuz, euskararen egungo erabilera areagotzeko duzuen nahia. Askok pozten nau, Galesko esperientziako zenbait ekimen azalduz, zuen programari ekarpenak eta ekintzak emateko eskatu izana.

Hasteko, bi oinarriko galdera egingo dizkizuet.

1. Zer espero duzue *Euskarak 365 egun* ekimenari dagokionez?

2. Funtzionatzea espero duzue?

Euskarak 365 egun dinamikaren helburuak hauek dira:

- “Hizkuntza-ohiturak aldatzea eta jende ahalik eta gehienak euskara gehiago erabiltzeko pausoak eman ditzan sustatzea.
- Euskararen alde lan egiten duten tokiko eragileen arteko ekintzak akuilatzea, hizkuntza-ohitura berriak erraz ditzaten eta komunitate euskalduna indar dezaten.
- Era guztietako erakundeek babesteko pausoak eman ditzaten sustatzea, euskaraz bizitzea posible egiteko eta horri dagokionez dauden oztopoak gutxitzeko.
- Ekimena burutu ostean, egindako aurrerapenak eta euskaraz ezartzen diren harremanak mantendu ahal izatea.”

Antolatzaileek jarraian aipatuko ditudan printzipio nagusiak azpimarratu dituzte Euskarak 365 egun dinamikari dagokionez. Honek izan beharko ditu:

- Osagarritasuna: Dinamika dagoeneko existitzen den euskal komunitatea osatzeko asmoz sortzen da, ekimenak eta programak sustatuz, eta haiekin modu bateragarrian elkartzeko eta lan egiteko asmoa du. Izan ere, parte hartzera gonbidatzen ditugu.
- Malgutasuna: Euskarak 365 egun udalerrri edo eremu bakoitzeko testuinguru eta lehentasun soziolinguistikoetara egokitu behar da.



- Martxan jartzea: Gure proposamena euskararen alde diharduten tokiko eragileak (sozialak zein erakundeetakoak) elkarrekin harremanetan jar daitezzen da, ekimena elkarrekin diseinatzeko eta garatzeko.
- Esparru komuna: Proposatutako dinamikak funtzionatuko badu, malgua behar du, eta udalerrri bakoitzeko errealitatera moldatzeko gai izan beharko da. Betiere, esparru komun bat izan behar du oinarri, tokiko komunitateetan nahastea sor ez dezan. Hori dela eta, udalerrri guztiek ezaugarri jakin batzuk errespetatzea gomendatzen dugu: helburuak, izena, irudia, ahobizi eta belarriprest-aren irudiak, eta aurrera eramateko epea.” (Euskaraldia 365 Egun, 2018)

Galesko esperientzia interesgarria da zuen ekintza-programarako, bi gizarteetan berrikusi direlako onarpen goiztiarra, hizkuntza ofizialaren elementua jaso duena, hezkuntzan indarrez sartu izana eta euskara edo galesa automatikoki lehenesten direneko eremu sortak. Hizkuntza erabileraren ohiturak birformulatzeko metodo berriak behar dira, aukerak ezarri behar dira eta eragile aktiboak adoretu behar dira. Hein handi batean, hori gaztelania eta ingelesaren nagusitasun hegemoniko jarraituari zor zaio, baina badu ere zerikusia hizkuntzaren biziberritze eta plangintzen aurrekusi ezinezko izaera hauskorrekin. Gizakion jokaera, sarritan, idiosinkrasikoa da eta ez du zertan moldatu esku-hartze ekintzaren programa arrazionalerara, nahiz eta horiek oso zintzoak, politikoki errotoak edo baliabidez ongi hornituak izan. Beraz, hizkuntza aukeratzeko eta erabiltzeko ohitura subkontzienteetan eragin behar dugu, hori da gakoa, jendeak aukeratzeko duena lotuago egon dadin egokitasunarekin eta espero denarekin, eta ez hainbeste edozein testuinguruko errealitatearen aurreko aukera kontziente batekin. Gutxi sentitzen dira eroso haien bizitza osoan zehar korrontearen aurka joaten, beraz, behar dena errealitatea eraldatzea da, gaztelania edo ingelesa hautatu beharrean, euskara edo galesa hautatzea nagusi izan dadin.

Hainbat elementuk eragiten diote erabilerari. Elementu horiek eskala eta denbora-eskala oso desberdinetan eragiten dute. Erronka ahalegin horiek armonizatzea da, bere kabuz manten daitezzen eta metagarriak izan daitezzen, haien potentziala lortzen ez duten ekimen zatikatuak egin beharrean.

Hizkuntzaren aktibistek, asmo onez betetakoek eta gobernuen politikak egin dituztenek hizkuntzaren sustapen eta erabilerarako gizarte zibila tresnaz hornitu ohi dituzte, eta etorkizun handikoenak edo errentagarrienak diren tresnak gobernuen politika ofizial bihurtzen dituzte.

Hizkuntza erregimena eraikitzea: hezkuntza, sektore publikoa eta legeak.

Egin berri diren ekimenak kokatzeko asmoz, zehaztu egin behar da ekimen horiek zein testuinguru soziopolitikotan eragitea espero den. Beste hizkuntza zeltikoez ez bezala, galesak bizitasun handia du hainbat eremutan, izan ere, lehenesten den komunitate hizkuntza da eta hiztun gehienek, edonon bizi direla ere, oso jarrera positibo eta baikorra dute hainbat eremutan hizkuntza egunero asko erabiltzeko dagokionez. Hein batean, horrek azaltzen du galesa ingelesaren pareko hizkuntza gisa uler dadin gertatu diren joera sortzaile eta berritzaile sendoak. Noski, badaude ere aurkako joerak, aipagarrienak bi dira: lehenik eta behin, landa eremuetako eta eta inguruetakoko gazteak



Galeseko hiriguneetara eta Erresuma Batuko edo kanpoko hiriguneetara joaten ari direla. Bigarrenik, ikastetxeetan galesa ongi ikasi duten ikasle askok ez dutela beti ikusten galesa aukera automatiko bezala, aitzitik, egoerak eskatzen duenean erabil dezaketen gaitasun multzo gisa ikusten dute.

Hizkuntzaren erabilera gaitasun eta ekintzen hainbat geruza edo maila eraikitzea bezala ikus daiteke. Normalean, biztanleen gaitasunak handitzea bilatu izan da, eta hezkuntzaren bitartez gazteengan inbertituz, mehatxatutako hizkuntza berrezartzean jarri izan da arreta. Hortaz, oinarriko maila gaitasunak handitzea da, ikastetxe eta unibertsitate sistemaren bitartez.

Hizkuntza berreskuratzeko plataforma sendo bat eraikitzeko ahaleginaren adibiderik argienetakoa lehen eta bigarren hezkuntzan egindakoa da; bai Galesen bai Euskadin, gurasoek eta gizarte eragile konprometituek aurrera eramane zituzten ekimenak hezkuntzaren legezko xedapenetan txertatu dira denborarekin (Thomas eta Williams, 2013). Hezkuntza formala hizkuntza jabekuntzaren oinarria da etxean edo komunitatean hizkuntzaren ugalketa oztoporik gabe gertatzeko moduko babesik ez dagoen alditan. Ez dut legezko hezkuntzan sakonduko, asko idatzi baita horri buruz, dena den, geroago aipatuko ditut hezkuntzan eragiteko beste moduak, gizarte batek hizkuntza gaitasun bat hizkuntza erabilera bihurtzeko duen ahalmena handitzen dituztenak.

Bigarren elementua hizkuntza erabiltzeko aukera sozialak zabaltzea izan da, etxeko, komunitateko eta auzoko ohiko eremuetatik haratago, historikoki errotuta egon diren erlijioaren, kultura herrikoia, olerkigintzaren, dantzaren eta musikaren eremuak gehituz. Horretarako erabiltzen den argudioa herriaren bizitza formaletik oso baztertuta egon dela da, hainbeste denboraz, galesa atrofiatu egin dela eta, horregatik, eremu berrietan aukera berriak bilatzea ezinbestekoa dela hizkuntza indartzeko.

Hirurogeiko hamarkadatik aurrera, hizkuntzaren aktibisten presazko helburua sektore publikoa izan zen, tokiko estatuak kontrolatzen zuena eta, horregatik, Erresuma Batuko estatu zentralak baino errazago ahalbidetu zuen hizkuntza aldaketa zerbitzu publikoetan, hala nola, osasungintza eta ongizate zerbitzuetan, tokiko gobernuan, gizarte zerbitzuetan eta antzekoetan. Bai Euskadin bai Galesen, tokiko agintari batzuek hizkuntza indigena asko erabili izanak jomuga zen hizkuntza-sektore osoan zabalago onartzea eragin du. Galesen, 1974an indarrean sartu ziren tokiko gobernuaren erreformak jarraituz, Gwynedd eta Dyfed Konderrietako Kontseiluak aurrendariak izan ziren ahalegin horietan.¹ Gwynedd administrazioan eta jendaurreko arretarako galesaren erabilera handitu izanaren eredurik onena bezala ulertzen badugu, arrunta da pentsatzea galesa erabiliko dela hainbat egoera profesional eta ekonomikoetan, eta komunikatzeko bitarteko gisa merkataritzan, eragiketetan, eskuladeko plangintzetatik hasi eta ingurumenaren babesa eta etxegintzaren garapenera arte. Horrek galesa lanerako, zerbitzuetarako, aisialdirako eta kirolerako hizkuntza gisa txertatzen du, izan ere, Konderriko Kontseiluak gainerako kontseiluekin, gobernu nazionalarekin eta gainerako erakundeekin (adibidez, polizia, suhiltzaileak eta anbulantzia zerbitzuak) dituen harremanak galesez egiten dituzenez, herri administrazio nazionalaren elementu elebiduna indartu egiten du. Gwyneddeko eredia hein txikiagoan birstutu egin dute beste hainbat toki agintaritzatan. Elkarrekin eratzen duten sare-efektuaren ondorioz, hainbat eskaera eta gaitasun sortu dira: makina bidez irakurtzeko moduko itzulpen gaitasun zerbitzu modernoak, Internet bidezko negoziak bideratzeko modu adimentsuagoak, tokian lan aukera elebidun



ugariak, ardura handiagoko ibilbide profesionalak, zeinetan gales maila handiarekin zeregin sofistikuak egitea baldintza bat den. Hori eginez, argudio ekonomikoak erantsi zaizkio laneko funtsezko elebiduntasunari, gizarteak balioesten duen gaitasuna izateko.

Tokiko gobernu sisteman lanerako ohitura eta zerbitzu elebidunak ezartzearen oinarriko abantaila kapital sozialerako baliabide indartsuak sor daitezkeela da, denborarekin herrialdeko hizkuntzaren erabileraren eremuan autojasangarri bihurtzeko aukerarekin, eta metatze-eragina izateko aukerarekin.

Hirugarren elementu bat goitik beherako hizkuntzaren arautzea izan da, hein handi batean, gizarte zibilak behetik gora egindako presioaren ondorioz. Galesen, Euskal Herrian bezalaxe, gutxienez lau belaunalditan egon dira hizkuntzaren babeserako ezinegona, protestak, kanpainak eta mobilizazio politikoak. Ondoz ondoko gobernu britainiarrek eta, orain, galestarrek, 1999ko eskuordetzearen ondorioz, xehetasun handiagoz zehaztu dute nola erantzun behar duen gobernuak, derrigorrez galesa gobernantzan zilegi den elementu gisa aitortzeko eskarien aurrean; horren ondoriozko erreformek hizkuntza paisaia askoz hobea eta ñabardura handiagokoa ekarri dute hizkuntzaren erabilerari dagokionez.

Westminsterreko Gobernuak onetsitako Galesaren 1969ko Legeak galesa eta ingelesa berdintasunez tratatuko zirela ezarri zuen eta galesez eskaintzen diren zerbitzuei zerbitzu publikoetako zenbait alderdi zabaldu zizkien. Westminsterreko Gobernuak onetsitako Galesaren 1993ko Legeak Galesaren Batzordea hizkuntzaren plangintza eta politikak egiteko agentzia gisa ezarri zuen, eta erakundeek jendaurreko arreta galesez nola emango zuten zehazten zituzten hizkuntza-eskema adostuen sistema eratu zuen.

2011ko Galesaren Araua (Gales) Galesko Batzar Nazionalak atera zuen lehenengo oinarriko legeetako bat izan zen. ⁱⁱ Galesaren estatus ofiziala berretsi zuen, hizkuntza estandarren sistema ezartzeko asmoa zuen eta Galesko Hizkuntza Komisarioaren bulegoa ezarri zuen 2012ko apirilean.

Lege horien eragina irismen handikoa da, batez ere eguneroko bizitzan hizkuntza gehiago erabiltzea ahalbidetzen duten zerbitzuak emateko orduan. Hori horrela, galesa erabiltzeko aukerak handitzearen helburua betetzen du. Dena den, dauden froga gutxiek egun eskaintzen diren eta abiarazi diren zerbitzuak partzialak, iraunkortasunik gabeak eta inolaz ere bermatu gabeak direla iradokitzen dute (Williams, 2010).

Hizkuntzaren aldeko aktibistek hizkuntza eskubideen sorta bat eskatu dute, hezkuntzan, enpleguan, osasungintzan, gizarte zerbitzuetan, lege-sisteman eta hedabideetan, besteak beste.

Erantzun ofizialaren arabera, hizkuntza eskubideak neurri horien bitartez ezarri dira; baina, errealitatean, eskubide horiek ez dira absolutuak eta ezin dira auzitegietan baliatu. Izan ere, hizkuntzen eskubideen kontzeptua bera zailtasunez bete da, hein batean, diskurtso ofizialean terminoak lausoki erabiltzen direlako, eta hein batean 2011tik aurrera galesa Galesen hizkuntza ofiziala izan denetik, ingelesak ez duelako berdintasunezko koofizialtasun



estatusik. Baina arrazoi nagusia Ingalaterra eta Galeseko sistema judiziala hizkuntza eskubide defendagarri bat zehazki nolakoa litzatekeen zehaztera bideratuta ez dagoela da.

Beraz, guk daukaguna gobernuaren ikuspegi gradualista duen betebeharrak, eskubide eta itxaropenen patina bat da. Bada, sistemak aitortzen du herritarrek zerbitzuak galesez jasotzeko zilegizko itxaropena dutela, eta herri erakundeek zerbitzu horiek emateko betebeharrak dutela, eta metatze-eragina biztanleei legezko eskubide absolutuak (aztertu gabe egon arren) balituzte bezala jokatzeko ahalbidetuko dien egitura eraikitzea da. Hala eta guztiz ere, aldarrikapenak ez dira auzitegietan defenda daitezkeen eskubideak.

Erretorika hau itxaropenak kudeatzeko iruzur bat al da? Edo modu britainiar oso pragmatikoa, lege edo Auzitegi Goren batean erabat frogatzen ez den bitartean, eskubide sorta baten antza duen zerbaiteko ematekoa?

Erantzuna britainiar politika pertsonalizatuan eta konpromisozko politikan dago.

EBren 1993ko Galesaren Legearen ondorioz, hainbat erakunde publikori agindu zitzaizkien galesa gehiago erabili behar zutela haien bezero eta langileekin, Galesaren Kontseiluak ikuskatutako Galesaren Plan bat jarraituz. Kontseiluak legezko hizkuntza plangintzarako agentzia gisa funtzionatu zuen 1993 eta 2012 bitartean.

Egun, 550 Galesaren Plan daude indarrean ia sektore publiko osoa eta sektore pribatuko eta boluntarioko zenbait elementu barne hartuz. Askok ongi funtzionatzen dute eta galesaren erabilera handitu dute, dudarik gabe, baina bi arazo nagusiak haien ahultasuna eta jendeak planaren sakontasuna ezagutzen ez duela dira (baita toki agintaritzak edo ospitale bat bezalako erakunde handietan ere). Honen eragina da jende askok horrelako planak saihesten dituela eta ingelesezko zerbitzua aukeratzen duela. Orduan, plan horiek zenbakitan ebaluatzen direnean, eskaera nahi zena baino askoz txikiagoa dela ikusten da. Plan hauek osatu egin dira, baina ez dira ordezkatu Hizkuntza Estandarrak baino kontzeptu berriago batekin (Osasungintza sistematik hartutako ideia izan zen). Sistema berri hori ikuskatzen eta arautzen ari da 2012an ezarri zen Galesko Hizkuntz Komisarioa. Hizkuntzaren araubidearen fase berri hau galesaren erabilera legezko betebeharren bitartez, hau da, legearen indarrez, handitzeko diseinatu zuten. Hizkuntza estandarrei buruzko xehetasunak Galesko Gobernuarenⁱⁱⁱ zein Galesko Hizkuntz Komisarioaren webgunean^{iv} aurki ditzakezue.

Beraz, egun arte izan ditugu:

- a) kanpainak zuzendutako politiken garapena,
- b) hizkuntza sustatzeko gobernuaren goitik beherako programak eta
- c) galesa gero eta eremu gehiagotan, hizkuntza ingelesarekiko berdintasunean, erabiltzea ahalbidetzeko diseinatu diren eta aldarrikatu diren legeak; den-denak erregulatzeko agintaritzak batekin indartu egin dira, Galesko Hizkuntz Komisarioaren irudi boteretsuarekin, alegia.



Erreforma horiek izan duten eragina galesa ahalmen ofizialarekin erabiltzeko aukerak eraldatzea izan da. Dena den, misterio bat dugu oraindik aurretik, izan ere, politketan egin diren erreformak eta gero, zergatik behar ditugu oraindik ekimen berriak?

Misterio horren gakoetako bat hizkuntza gaitasunak eraikitzearen, ahalmenak garatzearen eta hizkuntza aukeratzeko ohituren arteko harremana da.

Hizkuntza gaitasunak eraikitzea, ahalmenak garatzea eta hizkuntza aukeratzeko ohiturak

Erabilerarentzat plangintzak egin daitezke, eta baliabideak eman daitezke; portaera araututako ekintzen bitartez bultzatu/adoretu daiteke, besteak beste, hizkuntza planekin eta hizkuntza estandarrekin.

Hala ere, hizkuntza gutxitu baten erabilera handiagoaren ibilbidearen zati handi bat aurrebaldintzatu egiten dute botere harremanek, "beste" hegemonikoak (ingelesak, gure kasuan), aukera kostuek eta gutako askok eragile independente gisa ez jokatzek (ideologia neoliberalak iradokitzen dutena alde batera utziz) sare soziolinguistiko gero eta aniztunagoak eratzen ditugunean.

Erabilerari dagokionez, gaitasun batzuk eta ahalmenak eraikitzen dituela uste da, espazioak eta aukerak galesa erabiltzeko erabiliak izateko aukera egon dadin. Araututako gizarte honetan, gero eta gehiago eskatzen da borondate politikoa eta legitimazioa. Baina, batez ere, ahalegin aktiboa eskatzen du, aukera berriak baliatzeko eta, maiz ikusten dugun bezala, galesa eta ingelesa erabiltzeko askatasuna dagoenean, asko betikora itzultzen dira eta zerbitzuan edo ekintzan ingelesez egitea aukeratzen dute. Nola eragin daiteke jokaera horretan, nola eman buelta edo nola aldatu galesari mesede egiteko?

Iraganean eta egun dauden ekimen batzuk ikusiko ditugu, galesarentzat aukerak eta erabilera handiagoa bilatzen duen hizkuntza sustapenari, babesari eta araubideari zein ikuspegitik heldu zaion azaltzeko.

Ekimenak, hainbat mailatan

1. Familia- TWF esperientzia
2. Komunitateetan hizkuntza erabiltzeko, gizabanakoaren konfiantza garatzea.
3. Eremukako ekimenak
4. Komunitatea-The Mentrau Iaithe ekimena
5. Hiri-eremuak- Canolfannau Cymraeg
6. Musika, IT, kultura, antzerki eta hedabideen eremuan gazteentzat egindako ekimenak
7. Sare sozialak eta komunikazio elektronikoa
8. Goi mailako Hezkuntza eta Helduen Hezkuntza- 'CCC'
9. Hitzunekin lotura estua duten hedabideak
10. Lege-neurriak, araubideak eta estandarrak
11. Gobernuaren Politika Handinahia - 'Cymraeg 2050'



Familia- TWF esperientzia: Haurrak Elebiduntasunean Heztea

Aspaldiko egia da lehenengo urteak oinarrizkoak direla, Inazio Loiolakoak aipu ospetsu bat du: "Eman haurra lehenengo zazpi urteetan eta gizon bat itzuliko dizut." ^v Wordsworthek ere antzeko zerbait adierazi zuen "Haurra gizonaren aita da." Pentsamolde konbentzionalak azpimarratu egiten du haurrek lehenengo eskolaratzearekiko duen erakarpena, beste gurasoek egiten dituzten ahotik ahorako gomendioen bitartez. Galesaren Kontseiluko estrategiek, ni neu barne, posibletzat jo genuen gurasoengana langile medikoen esku-hartzearen bitartez heltzea, gurasoen etxera joaren zirenean haurrak elebiduntasunean hezteari buruzko informazioa gaitasun kognitibo gisa eta garapenaren gaitasun gisa partekatu ote zitekeen eztabaidatu genuenean; hori egiten zenean, gurasoen ehuneko batek, haien seme-alabak galesez matrikulatzea inoiz pentsatuko ez zuenak, oinarrizkoago ikusten zuen, eta ez hainbeste arrazoi kultural edo soziolinguistiko gisa, haien seme-alabak haurtzaindegi sisteman galesez matrikulatzea, hezkuntza formala galesez jarraituko zutenaren esperantzarekin.

Beraz, Twf (galesez "hazkundera" esan nahi du, baina akronimoak "Transfer Within the Family" edo "Familia barruko Transmisioa" esan nahi du) ekimenaren helburua gurasoei eta guraso izan zitezkeenei informazioa ematea zen, haurrak elebiduntasunean heztea dakartzan abantaila buruzkoa. Programa Hizkuntza Plangintzarako Galesko Zentroak zuzendu zuen, Galesaren Kontseiluak garatu zuen eta Galesko Gobernuaren diruaz egin zen. Nazioarteko ikerketak baliatu zituzten elebiduntasunak haurrentzat zituen abantailak azpimarratzeko. Abantaila horietako batzuk honakoak ziren:

- "Abantaila kognitiboak. Haur elebidunek sormenezko pentsaerarako joera handiagoa dute, objektu eta kontzeptu bakoitzerako hitz bat baino gehiago dutelako.
- Hezkuntzarekin lotutako abantailak. Haur elebidunak azkarrago hasten dira irakurtzen eta zenbakiekin. Geroago, azterketan emaitza hobeak izaten dituzte maiz.
- Abantaila ekonomikoak. Bi hizkuntza edukitzeak enplegurako aukera gehiago eskaintzen ditu, egun, lan askotan elebiduntasuna eskatzen baita". (Galesko Gobernu, 2006)

Twf-k 19 proiektuko langile zituen ia Gales osoa estaltzen. Emaginekin eta etxeko osasungintzako langileekin batera lan egin zuten, osasungintzako oinarrizko langile horiek zirelako familiekin, zaintza egin bitartean, informazio hori partekatzeko moduan zeudenak.



Proiektuak lehenengo urteetako hainbat erakunderekin ere egin zuen lan. Twfk informazioa gurasoekin partekatzeak zuen garrantzia azpimarratzen zuen, aukerak eta erabakiak informazioa eskuan zutela har zitzaten. Eraitza orokorren arabera, jomuga ziren eremuetan haurrak galesez matrikulatzeko aukerak % 30 gehiago inguru igo ziren.

Hala eta guztiz ere, familiaren barruan galesaren erabilera sustatzeko proiektu hau ezartzeko orduan izan zen arazo nagusietako bat gobernuak eta goi-mailako funtzionarioek familien eta komunitateen baitan lan egiteko beharra guztiz ulertzeko gai izan ez zirela da. TWFK ematen duen ikasbidea da proiektu organikoek, errotutakoek, aukera gehiago dituztela biztanleen beharrak asetzeko, eta politikak ezartzera eta gobernuko agentzia ofizialen erretorikara mugatzen diren proiektuek aukera gutxiago dituztela.

Azkenik, TWF plana indargabetu egin zen 2016ko apirilean eta, haren ordean, Mudiad Meithrin (Galesko Haurtzaindegien Mugimenduak) zuzendutako proiektu berri bat sortu zen, 'Cymraeg i Blant' (Haurrentzako Galesa) izenekoa.^{vi} Plan berriaren helmena behean aipatzen dudana ongi etorri-paketearen iragarkian laburtzen da:="

“Croeso i Cymraeg i Blant / Ongi etorri Haurrentzako Cymraeg-era

Haurrentzako Cymraeg proiektu berri bat da, gurasoak haurren zaintza eta hezkuntza galesez aukeratzen dutenean haientzat eta haien seme-alabentzat eskura duten bidaia elebidunaz ohartarazteko helburua duena.

Jarraian aipatzen diren Cymraeg for Kids laguntza taldeak daude gurasoentzat:

- 8-24 hilabete bitarteko haurrentzako masajea
- 10 astetik gorako eta 16 astetik gorako haurrentzako yoga
- 0-3 urte bitarteko haurrentzako errima saioak galesez

Talde hauek konfiantza hartzeko modu oso ona dira, jaioberriekin galesez esaldi sinpleak erabiltzen hasteko eta baita lagun berriak egiteko ere.

Horretaz gainera, 'Clwb Doti a Fi' izeneko hilean behingo klubek gurasoei aukera ematen diete abesti errazak galesez abesteko, istorio galesak entzuteko, haurrekin eskulanak egiteko, Lehenengo Urteetako beste kideen eskutik tokiko informazioa jasotzeko eta beste gurasoak ezagutzeko.

Kontuan izan ez dugula kobratzen taldeetara joateagatik. Ongi etorriak dira gales hiztunak, ikasleak eta galesa hitz egiten ez dutenak, talde guztiak elebidunak direlako. Zergatik ez probatu!

Gurasoak Cylch Ti a Fi (ibiltzen hasi berri diren haur eta gurasoen taldeak) izeneko taldeetara mugitzera animatzen ditugu eta, gure laguntza taldeetara etorri ostean, Cylch Meithrin-en izena ematera.“(MYM, 2016).



2. Komunitateetan hizkuntza erabiltzeko, gizabanakoen konfiantza garatzea?

'Mae dy Gymraeg di'n grêt' (Galesez ongi dakizu),

Edozein hizkuntza gehiago erabiltzeko oinarrizko oztopoetako bat, bereziki hizkuntza gutxituen kasuan, hiztunek haien buruarengan duten konfiantza faltarena izan ohi da. Mendeetan zehar mendean hartu ostean, eta ingelesaren rol hegemonikoaren ostean, zailtasun psikologiko sozial etengabeak daude norberak hitz egiten duen galesa normaltzat, erabilgarritzat eta merezi duen hizkuntzat hartzeko. Aldez aurreko jarrera hori nabarmenagoa da ikasten ari direnen, hiztun berrien eta hizkuntzaren gaitasun partziala dutenen artean. Kontua da ea nola igo konfiantza mailak hizkuntzaren erabilera ikasgeletatik at, egoera errealetan handitzeko.

Gurasoen konfiantza handitzeko asmoz, hiru urteko plan bat abiarazi eta eraman zuen aurrera Hizkuntza Plangintzarako Zentroak, Galesaren Kontseiluaren diruarekin. Planaren izena 'Your Welsh is great' 'Mae dy Gymraeg di'n grêt' ('Galesez ongi dakizu') da, eta bere helburua galesez sozializatzeko ohitura ez dutenei jarduerak eskaintzea da; aprobetxatu egiten dira Mentrau laithen planak aisialdirako jardueretan eta jarduera sozialetan, hala nola, sukaldaritza, artea, kirolean eta abar, eskaintzen dituen aukerak.^{vii}

2010eko martxoan egin zen hasierako ebaluazio baten arabera:-

"Ama kopuru oso txikia sentitu zen erabat pozik saioen hasieran galesa erabiltzen. Amak "ezin pozikago" zeuden haien seme-alabekin galesez hitz egiten zutenean. Parte-hartzaileak galesa hitz egitera animatuko zituzten jarduera praktikoak eskainiz, saioetan parte-hartzaileen konfiantza handitzea lortu zen eta, saioen amaierarako, amengandik jasotako frogek adierazten dute konfiantza handiagoa zutela haien hizkuntza gaitasunengan eta galesa gehiago erabiltzen zutela hainbat eremutan. Askok jarrera oso positiboa erakutsi zuten galesarekiko, hizkuntzaren ezagutza elementuen ondorioz.

Saio hauen bitartez, parte-hartzaileak galesa erabiltzeko aukerez eta galesko hedabideez gehiago ohartu ziren. Hala eta guztiz ere, parte hartzaile askoren familia eta/edo komunitateen inguru linguistikoak mugatu egiten zuen haien galesaren erabilera. Beraz, aintzakotzat hartu behar da nola jarrai daitekeen saio horietan burutzen den lan onarekin, agian amentzako talde sozial informal bat eratuz eta toki erakundeak (adibidez, ikastetxeak eta Mentrau laithak) jarduera eta gertakizun egokiak antolatzen animatuz.

Arreta eskaini behar zaie parte-hartzaile gehiago erakartzeko modurik onenei eta parte-hartzaileen arteko desberdintasun linguistikoei heltzeko moduei, parte hartzaile asko galesa ikasten ari ziren pertsonak baitziren, eta ez hainbeste galesa erabiltzeko ohiturarik ez zuten gales hiztunak.^{viii} (Gruffudd, 2010)



Ekimen horietako ideia eta jardunak gobernuaren programetan sartu ziren 2015eko martxotik aurrera, Bwrw Mlaen politikaren baitan, eta Mentrau Iaith eta Welsh for Adults (Galesa Helduentzat) diru-laguntzen parte gisa.

3. Eremuko ekimenak

EBn oinarritutako ekimenak 40 urte inguruz erabili dituzte herri pobreenetan dituzten arazo sozial eta ekonomikoei heltzen saiatzeko. Suspertzeko ahaleginetan arreta jarritz, adibidez, Ingalaterrako hiri eremu pobreenetako 39tan funtzionatu zuen Komunitateentzako Akordio Berriarekin, gobernuak komunitate behartsuetan (langabezia handia, hezkuntza-lorpen txikiak dituztenetan, jendea pobrezia ziklo etengabe harrapatuz) egiturazko arazoei heldu nahi ziren. Programak 2 mila milioi libra zituen, gizarte-desberdintasunak arintzen laguntzeko 10 urteko esku-hartze batean erabiltzeko. Ebaluazio txosten batek horrelako esku-hartzeekin jarraitzea gomendatzen zuen, EBko eremurik pobreenetan zituzten erronka berriei aurre egiteko. ^{ix}

Galesen eremukako 14 hizkuntza-ekimen jarri ziren martxan Galesaren Kontseiluaren eta hainbat toki erakunderen eskutik, arreta zehatza eta koordinazio maila handiagoa lortzeko, galesa erabiltzeko aukera berriak sortzeko asmoz. Ongi koordinatutako eremukako planek ongi funtzionatu zuten tokiko beharrak islatzen zituztelako eta behar bezala erantzuten zirelako, eta toki erakundeak elkarrekin jardutera bultzatzen zituztelako, horren adibide izan ziren Dyffryn Aman-ekoak, hezkuntza, sektore publiko eta pribatuko, eta gazteen enpleguko eremuetan tokiko agentzien eta boluntarioen hainbat erakunderen indarrak baliatu zituztenak. Horrelako ekimenen abantaila berezia banako komunitatea baino handiagoak eta toki agintaritzak baino txikiagoak zirela da, eta horrek elementu publikoak, pribatuak eta boluntarioak erakarri zituen. Desabantaila parte nagusiak gobernu nazionala (baliabide ekonomikoen eta Komunitatea Aurrea bezalako beste programekin) eta tokiko gobernuak (legezko betebeharrak betetz) izan zirela da, eta epe luzerako gai-zerrenda menderatzeko joera zutela, halaber, agian.

4. Komunitatea Garatzea – Mentrau Iaith (Hizkuntza ekimena) ekimena

Aitortu egiten da hizkuntzaren banako jabeak eta familiaren baitako transmisioa garrantzitsuak direla, baina lan munduan eta komunitatean jartzen dira praktikan gaitasun horiek. Komunitatean hizkuntza suspertzeko programen bi galdera nagusiak dira: -

Arriskuan dauden zenbat komunitatek mobilizatzen dituzte haien baliabide propioak eta kanpoko agentzia ofizialenak hizkuntza suspertzeko ahaleginak sustatzeko?



Nola lor dezakete komunitateek hizkuntza mobilizazioaren politiketan parte hartzea komunitate horietako pertsonak alienatzeko arriskurik izan gabe, hizkuntza suspertzeko ahaleginak haien izenean bideratzen direnean?

Arazo nagusiak dira horiek, maizegi, komunitateen mailako ekimenak gobernuaren buroraziaren arauekin oztopatu egiten baitira, eta aitortzaren politika gisa hasten dena azkar bihurtzen da betebeharren eta arauen politika.

Adostasuna dago, oro har, komunitateko hizkuntzaren plangintza tokiko testuingurua ulertuz egin beharko litzatekeela esateko orduan, eta horretarako ohitura sozialei, hizkuntza erabilerari eta gizabanako eta talde sozial zehatzen balioei, eta prozesu eta joera soziolinguistiko eta sozioekonomikoei buruzko informazioa biltzea eskatzen du. Galesaren Kontseiluak ekimen hauen plangintzan hartu zuen parte:

- galesa hitz egiten duten komunitateen egitura linguistikoaren eta horiei eragiten dieten faktore sozial eta ekonomikoen ikerketak abiaraztea;
- galesa hitz egiten duten komunitateen baitan galesak dituen mehatxu nagusiak identifikatzea. Sektore osoetan zehar, eragile nagusiekin batera, egon daitezkeen arazoei aurre egiteko ekintza planak prestatzea;
- tokiko gobernuen agintaritzak bateratuekin batera hausnartzea eta garatzea, bereziki tradizioz gune indartsuak izan direnetan, hizkuntzarekin lotutako ekimenak zuzentzeko orduan eta hizkuntza politikak koordinatzeko orduan izango dituzten zereginak;
- komunitateen arteko lankidetzak sustatzea, elkarren artean babestu, adoretu eta uler daitezkeen bultzatzeko;
- komunitateetan oinarritutako ekimenek ('Mentrau laith' bezalakoek) galesaren erabilera sustatzeko bide gisa duten eraginkortasuna balioztatzea, eta tokian garatzen diren ekimenen sorrera errazteko eredu gisa duten baliagarritasuna balioztatzea;
- tokiko hizkuntzen foroaren ezarpena erraztea, galesezko ekimenak sustatzeko, galesa erabiltzeko aukerak sortzeko eta jendea galesa erabiltzera motibatu eta animatzeko;
- helduek galesa ikas dezaten sustatzea (ikasgelatik kanpo galesa erabiltzea merezi duten aukerak ematea eta bestelako babes osagarria ematea barne);
- komunitatean galesa indartzeko helburua duten jarduerak babesteko diru-laguntzak ematea.

Nola gauzatu eta koordinatzen dira helburu eta ekimen horiek komunitatean oinarritutako erakundeen aldetik?

Erantzun pozgarri batek zerikusia du Mentrau laith, komunitate hizkuntza ekimenaren 23 agentzien garapenarekin; agentzia horiek linguistikoki abangoardiakoa den ikuspegia duten eta komunitatea suspertzeko lan egiten duten erakundeak dira. Galesek 22 Konderriko Agintaritzak ditu eta, egun, ia tokiko agintaritzak guztiek dute edo partekatzen dute Menter laith bat. Gainera, Patagonian, Argentinan, Menter laith bat ezarri zen 2008an, diaspora galesaren eta haren ondorengo beharrak asetzeko.



Mailaz mailako hazkundera egon zen lehenengo aldian (1991-2001), bi arrazoi nagusi eman ziren Mentrau laith babesteko: batez ere hizkuntzari dagokionez potentzial handia izan arren sare soziolinguistiko ahula duten egoera horietan, Mentrau laithek galesa mantentzeko akuilu soziopsikologiko nabarmena eskaintzen zutela baloaratzen zen. Bigarrenik, hizkuntza plangintzarako tokiko erakunde gisa, baliagarriak izan zitezkeen jarraian aipatzen direnen artean elkarlan sorta berriak sortzeko gune gisa: gobernu zentrala, Batzar Nazional gisa, Galesaren Kontseilua, tokiko gobernuak, legezko herri erakundeak, osasun erakundeak eta boluntarioen beste hainbat agentzia eta enpresa pribatu. Horretaz gainera, baliagarritzat jotzen ziren galesa erabiltzeko aukera zuten eremuak zabaltzeko.

1993 eta 2012 bitartean Galesaren Kontseiluak hornitzen zituen diruz, urteko 1,3 milioi libra ingururekin (1,47 milioi €), horrekin batera, Toki Erakundeek finantzaketa osagarria ematen zieten, urteko 310.384 libera ingururekin (351.935 €). Orain Galesko Gobernuak finantzatzen ditu zuzenean.

Menter (pl. Mentrau) laith bat, komunitateetako boluntario/kideek antolatu ohi duten tokiko hizkuntza erakunde bat da, komunitateei galesaren erabilera hainbat modutara handitzeko eta garatzeko babesa eskaintzen diena. Gurasoei haurrak elebiduntasunean hezteko aholkularitza eskaintzen zaie; herri erakunde eta boluntarioen erakundeei galesaren erabilera handitzeko aholkularitza; bezeroei zerbitzu elebiduna eskaintzeko irrikitan dauden negozioei; eta galesezko hezkuntzari buruz gehiago jakin nahi dutenei. Normalean, haien jardueren artean daude haur eta gazteek galesa erabiltzeko aukerak, sozialak eta aisialdikoak; galesa ikasten ari direnentzat ikasgelatik kanpo erabiltzeko aukerak; itzulpen lan txikiak abiaraztea edo bezeroak itzultzaile batekin harremanetan jartzea eta, jarduera sozialak eskaintzeko, tokiko erakundeekin elkarlanean aritzea.

Lehenengo proiektua, Menter Cwm Gwendraeth, 1991n sortu zen. Komunitatean galesa sustatzeko programa aitzindaria izan zen, eta hizkuntza plangintzaren eredu bat eskaintzen zuen Galesko beste lekuetara egokitu zitekeena. Hasierako estrategiaren helburuak hauek ziren:

- galesarekiko jarrera positiboak elikatuko dituzten, eta haren erabilera orokorra handituko duten baldintza sozialak sortzea;
- galesa komunikazio sozial eta instituzionalerako bitarteko gisa normalizatzea;
- hizkuntzak bizitzaren kalitatearekin, ingurumenarekin eta tokiko ekonomiarekin lotutako arazoekin duen harreman estua azpimarratzea.

Noski, Menter bakoitza eremu jakin bati zerbitzua emateko diseinatuta dago. Eremu bakoitzak bere behar eta indargune sozioekonomikoak ditu, eta goian deskribatutako jatorrizko ereduaren aldaerak daude. Aldaera horietako bat sortu zen bigarren Menterra da, Menter Aman Tawe izena duena. Haren helburuak Gales Hegoaldeko Tawe eta Aman Bailaratan galesa sustatzeko programa gisa jardutea zen.



Menter Aman Tawek, desindustrializazioaren eta emigrazio maila altuen ondorioz suntsituta zegoen eskualde nahiko pobre batean galesaren aldeko koordinazio foro gisa funtzionatu zuen. Haren jardueren arreta gazteen enpleguan eta galesa egunerokotasunaren elementu natural gisa hartzean egon zen, jarduera sozialak, partidak eta kultur ekintzak sortu zituen, eta baita sare sozial konbentzionalak ere, apurtuta zeudenez, zailagoa zelako galesaren bizitasuna babestea. Hasieran, asko azpimarratu zen zuzenean jendearekin esku-hartze soziala edukitzea eta ez ziztaion hainbeste arreta eskaini beste Mentrauek egin zuen egiturazko plangintzari. Batzuk esan dezakete Menter Aman Taweren eragina zuzenagoa eta berehalakoagoa izan zela, jarduteko modu funtsean pragmatikoarekin. Hala eta guztiz ere, estilo horrek eremuko gizarte-klasea eta lanbideen egitura islatzen zuen, nagusiki langile-klasekoa eta pobre samarra baita.

Hasieran, herrietan 25 batzorde inguru sortu ziren Menterraren lana azkartzeko. 1997rako asko itxi egin zituzten boluntarioen aldetik ez zelako gogo bizi eutsirik egon. Hasierako gogo bizia epeldu zenean, Menter Aman Tawek kausan aurrera egin zezaketen lider sozialen faltari egin behar izan zion aurre. Ez zegoen konpromiso edo ekimen faltarik langileen aldetik; falta zena Menterra komunitatearena izatearen sentipena izan zen, komunitateak arrakasta izateko interesa beharrean. Mentrau laithen sare nazionala garatu zenean, aitortu egin zen Aman bailararen beharrak hobeki ase zitezkeela hasierako Menter erakundeak nahasiz, eskala ekonomiak produzitzeko eta Neath Port Talboteko konderriak barne hartzen zuen eremu zabalagotik gaitasunak eraikitzeke helburuarekin.

Gwendraeth eta Aman bailara postindustrialietan egindako esku-hartze linguistikoaren ondorio nagusia komunitatearen konfiantzan eta buru-estimuan gorakada nabarmen bat izan zen, bertako biztanleek jarduera soziolinguistiko dinamikoak herrian izan zuen bultzada birsortzailea antzeman baitzuten. Eskala mugatu batean sare kulturalak eta sozioekonomikoak berriz eratzeari ere lagundu dio. Hori egia izan da ere esku-hartze aldiari ezarri ziren galesaren beste 20 Mentrau askoren kasuan. Hizkuntza estrategia nazionalekin batera, Mentrau laithen eskualdeetako erakunde askok haien zerbitzuetan hizkuntza aukeratu ahal izatea eskaintzeko bide eman dute. Aukera berri horiek galeseraz egiten diren jarduerak indartzea ekarri dute, herri kulturaren, kirolean, osasungintzan, haurrentzako jardueratan eta beste hainbat eremutan.

Mentrauen eta Komunitateko Hizkuntza Plangintzaren ebaluazioa

Egun, Mentrau laithen esparru nazionala eta zeregin nagusia hobetzen jarraitzen dute, izan ere, hizkuntzaren zatikatzea jorratzeko agentzia garrantzitsu bihurtu dira. Beste abantaila bat da Mentrauek galesaren erabilera eremu mugatuetan bultzatzea dezaketela, inolako barrutiko administrazio ofizialaren parte izan gabe ere. Autonomia hori areagotzeko, Mentrauetako langileek zorrotasun politikoa frogatu behar dute, eta pertsonen arteko gaitasunak erakutsi behar dituzte, koordinatzeko erakunde errespetatuak izan behar direlako, inolako estatus politiko edo erakunde-botere izateko beharrik gabe.



Gehien garatu den Mentrauek eskarmentu handia du eta Galesaren Kontseiluak egin zituen aurreko politiken gomendioak bere egin ditu, eta Komunitateko Hizkuntzaren Plangintza bezalako berrikuspenak sustatu ditu (Williams eta Evas, 1997), Mentrauen garapenerako esparru estrategikoa diseinatzeko helburua zuena.

Komunitateko Hizkuntzaren Plangintzak lider sozialak hizkuntzaren birsortze prozesuan elikatzeko eta txertatzeko moduari arreta eskaintzea gomendatzen zuen. Williams eta Evasek (1997, 1998) komunitateko hizkuntza plangintzaren testuinguruan proposatu zituzten beste hiru bideek ez dute babesik izan oraingoz: onetsi diren Tokiko Ekintza Planak, Konderri eta Nazio mailan Baliabide Zentroak ezartzea eta Hizkuntza Animatezaileen papera garatzea.

Bigarren berrikuspen batean 'Venturing Onwards' (2000) bi gomendio garrantzitsu zeuden, zehazki Galesaren Kontseiluaren legezko funtzioak, finantzaketa eta langile zuzkiduren mailak handitu egin behar direla, bai nazio mailan bai komunitate mailan hizkuntzaren plangintzarako ekimenak koordinatzeko orduan duen eragina eta eraginkortasuna bermatze aldera; eta bigarrena, edozein tokiko plangintzak erakunde nazionalen boterearen babesa behar dutela, bestela, komunitateetako kideek ez baitute behar adina botere edozein aldaketa haien kabuz lortzeko. "(Jones and Ioan, 2000, p. 123).

Gomendio horiek abiaraztearen ondorioz, Mentrauek hazkunde eutsiko aldi bat izan zuten, eta galesaren hizkuntza politika eta plangintzaren funtsezko elementu bihurtu ziren. 2008rako 22 Mentrau laitheko sarea zegoen ezarrita, guztira, Galesaren Kontseiluak 1.450.537 £ko babes eman ziola.^x Horrek % 122,3ko babes maila handiagoa suposatzen du, 2001/2an 18 Mentrauek jaso zituzten 652.425 £rekin alderatzen badugu. Mentrauek kanpoko finantzaketa anitza erakartzen jarraitzen dute haien helburu kolektiboak betetzeko helburuarekin, eta Mentrauek komunitateko bizitzaren eta zerbitzuen horniduraren elementu integralago bihurtuz.^{xi}

Erronka nagusiak

Nola erantzun dute Mentrau laithek ongizate estatuan, neoliberalen eta sortzen ari den tradizio galestarrean gertatu diren aldaketen aurrean? Hasieran, Galesaren Kontseiluaren finantzaketa, gidaritza eta zilegitasunarekiko mendetasun handia zutenean, Mentrauek kolokan zeuden oinarritzko hizkuntza erregimen baten baitan. Araubidearekiko, helburuak ezartzearekiko, diruaren balioarekiko eta kontu ematearekiko ardura neoliberalak Mentrauek erakundetzeko eta, nolabait, estatuaren agentzia baten aginduen arabera izateko presioa handitu zuten. Mentrauek presio horien aurka egin zuten. Horrek desadostasunak eragin zituen Galesaren Kontseiluarekin estrategiari, finantzaketa arazoei eta kontu emateari buruzko aginduen inguruan. Ohiko tentsio iturria zen Mentrau askok, finantza osagarriak bermatzeko, jatorrizko jarraibideak handitu zituztela eta hainbat arlotan eskaintzen zituztela zerbitzuak, besteak beste, turismoan, gizarte zerbitzuetan, galesaren irakaskuntzan, itzulpengintzan, eta abarretan. Baina hori presio neoliberalen aurrean aurreikus zitekeen erantzuna zen, merkatuaren eskariei eta eskura zeuden finantzaketa iturri ugari (tokikoan zein Europar Batasunekoak) erantzuten baitzieten.



Egin den beste kritika bat da Mentrauek, haien garapenaren aldi batzuetan, anbiziorik ez zutela eta sare nazionaletik eta erakunde babesleengandik isolatu egi zeudela, sarritan antolatu gabe eta, finantzei zegokienez, epe laburrean hondamendiak izateko joera zutela, plangintza zehatz eta profesionalik ez zutelako. Berrito ere, administrazioaren alderdien kudeaketa eta kontrola egin beharrean, gazteen lanaren edo kultur ekintzen alderdi "dibertigarriagoetan" edo helburu errazen lorpenean aritzen diren boluntarioetan mende egotearen ezaugarri da. Horren ondorioz, Galesaren kontseiluak aldi zailak izan zituen, zeinetan zuzentasun fiskala, kontabilitate prozedura ongi antolatuak eta tokiko gobernantzaren jardun onak gauzatzeko saiatu zen.

Finantza, eskumen eta ardura arazoek sortzen ari zen Galesko tradizioaren eta Erresuma Batuko estatuaren tradizio nagusiaren arteko tentsio gehiago islatu zituzten; batzuetan horiek estatuaren tradizio horrekin osatu eta/edo "hegemonizatu" egin dira. Mentrauek Galesko tradizioa gehiago islatzen duten arren, estatuaren tradizioan gertatzen diren aldaketek ere eragiten diete.

Komunitatearen garapenari dagokionez, Galesko Gobernuak Galesaren Kontseiluko langileen eskarmentua jaso du eta etengabeko babes finantzarioaren arduraduna da: 2012-2013 bitartean Mentrauen kostuei 1,5 milioi £ko (1,69 milioi €) ekarpena egin zuen. Mentrauek Hizkuntza Galesaren 2012-2017 Estrategian (Galesko Gobernuak, 2012) aipatzen diren helburuak bere egiten dituzte, Galesko tradizio autoktonoaren eragin nabarmena dena. Bi eragiketaldaketa aipagarri dira orain Mentrauek urtero finantzaketarako lizitazio bat egiten dutela haien urteroko dirulaguntzen eskaeran, eta horrek ere eska dezake finantzaketa gehiago lortzeko lan dibertsifikatuago gehiago egitea. Bigarren erreforma da orain Galesko Gobernuak finantzatzen dituela Mentrau Iaithe Cymru-ak (erakunde koordinatzailea), Galesaren Kontseiluak askatu zituen erantzukizunetako batzuk zuzenean bere gain hartuz. Horrek barne hartzen du informazioa, komunitateko jardunbiderik onenak eta ideia berritzaileak hedatzea, hilero buletin bat sortzea, mintegiak, tailerrak eta hitzaldiak antolatzea, eta langile edo boluntarioei gaikuntza ematea Mentrau indibidualekiko zuzeneko babesarekin.

Tradizio zuzenago eta interbentzionistago honen ondorioz, Mentrauen etorkizuneko garapenaren inguruko galdera interesgarriak sortzen dira. Lehenengoa, galde daiteke ea sortzen diren Mentrauak hizkuntzaren, komunitatearen edo ekonomiaren garapenerako egin behar ote diren, edo hiru horien nahasketa izan behar diren. Bigarrena, zein harreman dago Mentrauen eta tokiko agintaritzen artean? Denborak aurrera egin ahala, aurreikus daiteke hautatutako toki agintaritzei Mentrau berrien eta dagoeneko daudenen beharrei babes handiagoa eskatuko zaiela. Ikuspegi politikotik, urrats positiboa izan daiteke, Mentrau Iaithek egiten dituzten ezin konta ahala jarduerak ongi ezarritako legezko eta boluntarioen erakundeetan koordinatu daitezkeelako, komunitateak suspertzeko prozesuan parte hartzen duten agentzia interbentzionista errentagarri gisa jardun dezaten ahalbidetuz. Dena den, hainbat egiturazko erreformaren eta murrizketa fiskalen ondorioz, tokiko gobernua erantzukizun gero eta gehiago hartzeko duen ahalmena ezbaian jarri da.

Mentrauak agentzia interbentzionistak izan behar badira, zein ibilbide mota izango dute? Epe luzekoa edo epe ertainekoa? Mentrauei dagozkien paradoxa bat da haien elementu katalitikoak galduko dutela, esku-hartzearen bidez



eragingo zuteneko erakunde sisteman sartuko baitira. Beraz, Mentrauek derrigorrez izan behar al dira bestelako komunitateko ekimenen aldi baterako osagarriak, jatorrian Galesaren Kontseiluak proposatzen zuen bezala? Edo kontuan izanda Galesko Gobernuak hizkuntzaren erantzukizun zuzena hartu duela, besteek hasitako galezko jarduerak koordinatzeko eta sustatzeko agentzia iraunkorrak izan behar al dira, hizkuntza erregimenaren baitan? Normalean, gobernuek horrelako ekimenak aldi motz batetarako eratzeko nahia izan ohi dute, finantzaketa-iturri nagusien bilaketaren bidez bere kabuz mantendu daitezten, baina sarritan ez dira gai izaten eskaintzen dituzten berme finantzarioez libratzeko. Autarkia finantzarioa nahi bideragarria izan daitekeen arren, oraindik ere badago Mentrauek gobernuaren hizkuntza politikaren luzapen gisa tratatzeko joera. Teorian, Menterreko langileak tokiko batzordearen aurrean dira erantzule, baina hainbat kasutan gobernuko erakundeek enplegatu publikoak balira bezala tratatu dituzte eta, kasurik muturrenetakoan tartean sartu dira, haien dirulaguntzak bertan behera utziz eta porrot egin duten Mentrauek berrerosteko eskubidea bertan behera utziz.

Dena den, plangintzagile eta aktibistentzako misterio nagusi bat dago hemen. Mentrauen zeregina argiago definitzen ez bada, eta komunitatea, ahalduntze eta elkarlana bezalako oinarritzko terminoak lan egiteko orduan berdin ulertzen ez badira, era honetako hizkuntza plangintza aldian behin aldatuko da ziurrenik. Herri finantzak mugatu ahala, ahaleginak egingo dira galesa suspertzeko ahalmena eta erantzukizuna komunitateari "itzultzeko" edo "eskualdatzeko", horretarako beharrezkoa den, eta asmo horiek praktika sozial gisa betetzeko beharrezkoa den inbertsio politiko eta ekonomikoa egin gabe.

Azkenik, hiru joerekin egin beharko dira saioak. Lehenik eta behin, komunitatearen babesaren kostuek nabarmen egin dute gora, baina Galesaren Kontseiluarekiko hasierako mendekotasun finantzarioak finantzaketa-iturri aniztunagoa izatera pasa da, gobernu zentralaren, tokiko agintaritzaren, finantzatzaile pribatuen eta Europar Batasunaren babesa izatera. Bigarrenik, Mentrauen jarduera-sorta gero eta handiagoa eta metatzaileagoa da. Horren ondorioz, eskalako ekonomien eta lehenespenak egiteko beharra dago, hizkuntzarekin lotutako inbertsioek honakoak emateko behar gero eta handiagoekin lotuta baitaude: software berria, IT, itzulpenak, berrikuntza terminologikoak, lanerako jardunbide onenen programak, txantiloak, eta abar. Horrek eskatu egiten du kontu handiz eta modu zentralizatuan kontrolatu behar direla corpusak eta estatuak plangintza bat egitea (gaur egun Galesko Hizkuntz Komisarioaren eskumena da), merkatu nahiko mugatu batean gerta daitezkeen bikoizketak murrizteko. Hirugarrenik, Galesko Gobernuaren babesa erabakigarria izan da hizkuntza politika laith Pawb (2003) bere dokumentu estrategikoan eta hari lotuta geroago atera diren politikan (bereziki Galesaren Estrategian, 2012) zehazteari dagokionez. 2003an aitortu egin zen politika hori egiteko hizkuntzaren plangintzarako agentzia zentralak, alegia, Galesaren Kontseiluak, bere langile kopurua eta baliabideak handitu behar zituela, ekimen hauek kudeatzeko eta finantzatzeko, eta hedapena lortu ahal izateko. Horren ondorioz, komunitatearen hizkuntzaren plangintzaren potentzial asko konpromisoa zuten boluntario eta profesionalen borondatean oinarritu bada ere, politikak garatzeko orduan, frogetan oinarritutako ebaluaketak eta programen ohiko kontrolak izan dira oinarria. Horrek galesa sustatzeko argudio sendo bat eman du eta, ondorioz, ez zaio leporatu programa horiek ez dituztela asetzen komunitatearen beharrak eta ez dituztela lortzen epe luzeko hobekuntzak gizarte ongizatean, gaitasunen jabekuntzan, ekonomiaren dibertsifikazioan eta aisialdiko jardueratan. Izan ere, kontrakoa baieztatu daiteke lasai



asko, ekimenek funtzionatzen dutela dirudielako eta, horretaz, Galesko testuinguruan garatzen jarraitzeak merezi duelako.

Hirugarren berrikuspen batek (Evas et al, 2014), Mentrauek aurrera egitearen alde egin zuen argi eta garbi, eta koordinazio erakunde nazional eraginkorrak defendatu zituen, Mentrau laith Cymruei ikuskaritza eta plangintzako zeregin gehiago emateko eskatuz, jardunik onenak heda zitezten eta buru izatearen zeregina sendoagoa izan zedin. Ebaluazioak, gainera, gomendatu egin zuen gobernu nazionalak epe luzeagorako aurrekontua eman ziezaien Mentrauei, ekintza programa garrantzitsuagoak garatzeko aukera izan zezaten, eta tokiko hizkuntzaren plangintzagile eta animatzaile gisa lan egin zezaketen eragileak kontratatu, prestatu eta garatzeko aukera izan zezaten. Gobernuak gobernu horiek onetsi eta abiarazi zituen, batzuetan ezarritako koordinazio erakunde nazionalak itxura nahiko ahula badute ere!

5. Hiri-eremuak – Canolafannau Cymraeg

Canolfannau Cymraegak jarduerak galesez eskaintzen dituzten gizarte zentroak dira. Ekintzak "leku seguruetan" gertatzen dira, eta atea zeharkatu bezain laster, galesez egiten da. Lehenengo zentroak aspaldian anglikanizatutako hiri eta eskualde industrialetan zabaldu ziren: Clwb y Bont (Pontypridd) 1983; Clwb Ifor Bach, (Cardiff) 1983; Clwb Brynmenyn 1987, Tŷ Tawe (Swansea) 1987. Horrelako zentro asko daude orain, batzuk tokiko babes dute, besteek gobernu nazionalak laguntzen ditu diruz, Bwrw Mlaen ekimenaren bitartez. Zentro horiek leku hauetan kokatzen dira: Y Lle-Llanelli, Y Man a'r Lle, Aberteifi, Tŷ'r Gwrhyd-Pontardawe, Canolfan laith Ysgol Henry Richard-Tregaron, Yr Atom-Caerfyrddin, Y Pobty-Bangor, Yr Hen Lyfrgell-Caerdydd. Hainbat zerbitzu eskaintzen dituzte, topaketa sozialak, dendak, gaitasunak garatzeko jarduerak eta aisialdikoak; denei irekita daude, haien gaitasun-maila edo hizkuntza *continuum*a edozein direla ere. Hasiera batean Helduentzako Gales Zentroei atxikita pentsatu ziren, hau da, hizkuntza irakaskuntza zentroei atxikita, baina gaur egun guneko sozial erabat zabalak dira.

Tŷ Tawe centre-ko hasierako bi aitzindariak, Heini Gruffudd eta Steve Morrisek zentro horiek hedatzeko plan nazionala diseinatu dute, ebidentzia enpirikoan oinarrituz, 2012ko txosten batean.

Haien txostenaren hitzaurrean Canolfannau Cymraeg-aren kontzeptua garatu izana eskertu nuen, eta zera esan nuen:

"Helduentzako Gales Zentroyen lan bikainean aurrerapausoak ikusi nahi baditugu, noski, aukera egonkor, ausartak eta merezi dutenak ikusi beharko ditugu, zeinetan nahia izango den gure motibazioaren eraginik handiena, eta ez betebeharra... Hemen iradokitzen direnak bezalako Canolfannau Cymraeg eratzen badira, ziur nago gutako askoren bizi-kalitatea hobetuko zenaz, galesa gertakizunen eta inguruko hizkuntza naturala izango zeneko kokapen argiak



egongo lirakeelako, eta hori ez da ohikoa gure komunitate postindustrial, kulturantzun eta axolagabeetako ikastetxeetatik kanpo. Canolfannau Cymraegek itxaropen, energia eta konpromiso gehigarria ematen diote galesaren arrakastari, eta espero ez dena eta ezagutzen ez duguna dugu zain. Ez da ikastetxeen luzapen bat, ezta agintariak egindako plan edo proiektu baten egitura zurrun eta neurgarria ere, baizik eta deskantsatzeko, hainbat modutara ikasteko leku berri bat eta, batez ere, gozatzeko leku bat, eta kontuan izan behar da gu gairela izan gaitzkeena, hau da, leku normaletan, lanean eta abarretan, hizkuntza normal bat hitz egiten duten hiztun normalak izateko gogo handia, nahia sortzearen parte gairela.”^{xii}(Williams, 2012).

Gruffudd eta Morrisek (2012) egiaztatu nahi zuten ea ‘Canolfan Gymraeg’ batean ikasteak eragina duen helduek eskura dituzten gizarte sareetan, aukera hori izan ez zuten eta Canolfan Gymraeg batean ikasi zutenekin alderatuz. Eskura zeuden aukerak, gales hiztunen komunitatean txertatzea eragozten zuten oztopoak eta hizkuntza galesaren hiztun berrien sare sozialak hedatzeko eta luzatzeko aurrera eraman zitezkeen estrategiak aztertu zituzten.^{xiii}

Zentroak hiztun komunitate bizia nagusi izan ez duten eskualdetan daude. Beraz, elkarrekin harremanetan jarriko diren hiru gales hiztun motarentzako elkargunean eskaintzen dituzte. Hiztun mota horiek hauek dira: a) galesa ikasten ari diren helduak; b) ikastetxeetan galesaz ikasi duten ikasleak, eta c) galesa hitz egiten duen bertako gutxiengoa, hizkuntza nola ikasi duten alde batera utziz.^{xiv}

Argudiatu zuten Canolfannau Cymraegek potentzial handia dutela ikastetxeetan galesaz ikasi duen, baina ikastetxeko korridoretatik kanpo galesa erabiltzeko aukerarik ez dagoen eremuetako gazte kopuru gero eta handiagoari galesaz sozializatzeko aukerak eskaintzeko.

“Motibazio nagusia ‘*Galesa Galesen bizi ikastea*’ da. Integratzeko motibazio horiek dira nagusi, baina horrek erronka bat dakar, ikasten dutenen zer nolako “gales hiztunen komunitatetan” sartuko diren zehazteari dagokionez. Paradoxa bat dago integratzeko motibazioari dagokion nahi horretan eta galesaren erabilerari dagokion errealitatean.” (Gruffudd eta Morris 2012).

Haien ikerketan ikusi zuten aztertutako eremuetan jarduera eta gertakizun dezente antolatzen direla galesaz, baina ikasten dutenen ehuneko txiki batek soilik baliatzen dituela erregulartasunez. Gehien baliatzen dituztenak *sesynau siarad* edo Canolfannau Cymraegen izaten diren elkarrizketa saioak dira, eta ingurune ‘ezagun’ eta ‘seguruan’ egiten zirelako zen erakargarria.^{xv} Dena den, ikasle gehienek ez zuten parte hartzen eskoletatik kanpo eskura zituzten aukeretan. Dena den, ikasleen heren batek astero erabiltzen zuten galesa familiako kideekin, eta laurden baten astero erabiltzen du Canolfannau Cymraegen, eskura edo gertu dituzten lekuetan.

Egileek aitortu egiten zuten eskaintza ez zela ongi onartzen konfiantza faltarengatik, batez ere: onartu egiten da oztopo gisa galesa komunitateko beste gales hiztunekin erabiltzeko orduan.

Zera ondorioztatu zen Canolfan Gymraegei buruz:



- Erraztu egiten dutela ikasleek beste gales hiztunekin harremanetan jartzea eta eremu egokia eskaintzen dutela elkarreragin horretarako;
- Konparatiboki galesa hitz egiten ez duten komunitateetan galesez egiten diren jarduerentzako gune natural eta bistakoak eskaintzen dituela, gales hiztunek joateko beste inolako gune argirik ez dagoenean;
- Ikasten ari direnek askoz gehiago erabiltzen dutela galesa bertara joaten direnean;
- Bertara joaten diren ikasleen zirkulu sozialak handitzen dituztela, lagunak egiten dituztela;
- Ikasten ari direnen konfiantza handitzeko baliabide bat dela.

Ikerketan gomendatzen zen konparatiboki galesa hitz egiten ez duten komunitateetan arreta jarri beharko litzaiokeela gales hiztunen komunitateak berregiteko posibilitateari, eta Canolfan Gymraeg horretarako baldintzak ematen dituen bitarteko bat da;

- Plangintza egiteko orduan, ikasten ari direnek galesa familiarekin erabiltzeko motibazioa asetzeko helburua hartu behar da kontuan, eta norabide zehatz bat eman behar zaio galesa etxean (eta handik komunitatera) transmititzeko modu onenei dagokionez;
- 'Canolfan Gymraeg' terminoa estandarizatu egin beharko litzateke, ikerketan gomendatzen den 'hizkuntza zentro' motari erreferentzia egiteko. Terminoa ez litzateke itzuli behar ingelesez aipatzen direnean, hau da, bi hizkuntzetan 'Canolfan Gymraeg' erabili beharko litzateke. Horrek bermatu egingo luke zentro eredu jakin bati egiten zaiola erreferentzia, eta horrela, saihestu egingo litzateke zentro horiek eta Helduentzako sei Gales Zentroekin nahastea. (Gruffudd eta Morris, 2012).

Hizkuntza suspertzearen adibide guztietan arazo nagusietako bat hiztun berriek 'zubia nola zeharkatzen duten' da, 'ama hizkuntzatzat duten hiztunen' moduan onartuak izan daitezten. Funtsean, hori da aurretik eztabaidatu diren ekimen askoren arrakasta maila neurtzeko elementu erabakigarria, denen helburua hiztunek gizartean duten lekua indartzea baita. Horrek komunitateko hiztun gehienetan erantzukizun bat jartzen du, ikasten ari diren, eta hizkuntza komunitatearen sareetan sartu edo ongi etorriak izan nahi dutenen behar eta kezkek onar ditzaten. Aipatutako ebaluazio txostenean, horretan aurrera egiteko ideia oso on batzuk daude, hona hemen batzuk: -

- "Ikasten ari direnek, funtsean, integratzeko motibazioa dutenez, motibazio hori ahaleginekin lotu behar da plangintzaren bitartez, ikasten ari direnek komunitateetan galesa gehiago erabiltzen dutela bermatzeko;
- Ikasten ari direnentzat aukerak erraztu behar dira, boluntarioak eta gertakizun eta jardueren antolatzaile bihurtu daitezten toki mailan;
- Estrategia egokiak hartu beharko dira aintzat, "hizkuntza konfiantza" kontuan hartuz, ikasten ari direnen artean konfiantza bultzatzeko;
- Aintzat hartu beharko dira gales hiztunak ikasten ari direnen behar zehatzez ohartzen direla bermatzeko eta galesez komunikatzen jarraitzeak duen garrantziaz ohar daitezten. "(Gruffudd eta Morris, 2012).



Gobernuaren erantzuna ikerketan ikusi zena babestea izan zen, eta baita behetik gorako zentroak, Tŷ Tawe, Merthyr, Saith Seren Wrexham bezalakoak, hizkuntzarentzako goitik beherako plangintzaren baitan gobernuak lagundutako zentro berriago horiekin osatzea ere.

Galesentzako galdera handia, eta baita Euskal Herriarentzat ere, hauxe da: bi ikuspegi-tako zeinek ekarriko du iraunkortasunik handiena? Ekimen organikoak edo planifikatutakoak?

6. Musikaren, IT, kultura, atzeri eta hedabideen eremuan gazteentzat egindako ekimenak

Era horretako ekimen ugari dago, baina zenbait adibide garrantzitsu dira: -

Galesko pop eszena, Sain diskoetxea, Cylchgrawn y Selar, hacialith, Ysgol Glanaethwy Tafwyl, Theatr Clwyd, eisteddfod tokiko txapelketak eta txapelketa nazionalak.

7. Hitzunekin lotura estua duten hedabideak

S4C (galesezko telebista), BBC Cymru Fyw, BBC Radio Cymru, BBC Radio Cymraeg 2, bertako irrati txikiak, Galesko filmak, eta abar.

8. Sare sozialak eta komunikazio elektronikoa

Galesak nahiko ongi garatutako IT, saretze eta sare sozial ahalmena ditu. Sare sozialetan, webguneetan erabiltzen den galesaren eta sare sozialen baitako portaeraren lanen corpusik luzeena Daniel Cunliffek egindakoa da. Xehetasun gehiago nahi izanez gero, ikus Cunliffe et al (2013a), (2013b); Deere, A. and Cunliffe, D. (2009); Morris, D., Cunliffe, D. eta Prys, C. (2012). Gizartearen eta ITren interpretazio konbinatua nahi izanez gero, ikus Evas eta Williams, (2011); eta galesari buruzko Meta Net lanerako dokumentu zehatza ikusteko, ikus Evas, (2013).



9. Lege-neurriak eta agintaritza legegileak

Presio sozialak eta ingelesaren gailentasunak galesaren erabilera hamarkadetan zehar ahuldu dutenez, ahalegin bat egin da administrazio publikoan, justizian eta lan munduan galesaren eta ingelesaren berdintasuna legez bermatzeko. Hori horrela, Galesko Hizkuntz Komisarioaren bulegoa, 2012ko apirilaren 1ean zabaldu zena, araubidearen paisaia duela gutxi gehitu den elementua da, sendoa izan daitekeena. Legezko ikerketa eta esku-hartzeen bidez, Komisarioak osasungintzan, banketxeetan, goi-mailako ikasketetan, lantokian, eta abarretan galesaren erabilera eta erabiltzeko aukerak hobetzen saiatu da. Komisarioak eskumen asko ditu eta bere ekintzen indarrak hizkuntza erabiltzeko gune eta aukera berriak sortzeari arreta jartzea eragiten du.

Hala ere, hasieratik sustapen, babes eta araugintza funtzioen ardura zein agentzia ofizialki dagokion modu nahasi, zatikatu eta kontrakoan interpretatu izanak enbarazu egin dio Komisarioaren funtzionamenduari (Williams, 2013).

Komisarioa ez den beste araugile bat edukitzearen abantailen inguruko eztabaidak Williams (2007)n ikus daitezke; hizkuntza defendatzaile, komisario eta araugileen ezaugarri buruzkoak Carlin et al (2015)en ikus daitezke; Galesko Hizkuntz Komisarioaren lehenengo urteen berri izateko, aldi, jo Mac Giolla Chríost (2016)era.

2017ko udaberrian, Galesko Gobernuak egungo sistema hobetzeko frogak eskatu zituen. Dei horrek izan zituen 504 erantzunak anitzak izan zere, baina sistema argiago izatearen aldeko joera zuten, eta baita Galesko Hizkuntz Komisarioaren eta Galesko Gobernuaren zeregin zehatz eta bereziak argiagoak izatearen aldekoak ere. Erantzun horien artean, Mac Giolla Chríost et al (2017) erantzuna zegoen, bertan, Hizkuntz Komisarioaren zereginak arinduko zituzten erakundeko antolamendu alternatiboak aipatzen ziren. Garai hartan Etengabeko Ikaskuntza eta Gales ministroa zen Alun Daviesek esan zuen sistema araugilearen inguruko frogak eske horren aurrean jaso ziren erantzun askoren arabera, Galesaren Estandarren inguruko burokrazia gogaikarriegia zela. (Galesko Gobernuak, 2017a; 2017b; 2017c; Wales Online, 2017).

Orain dagoen iradokizuna Komisarioa Batzorde batekin ordezkatu behar dela da, eta galesarekin lotutako sistema araugilea eraberritzeko saiakera bat egin zen Galesaren Legea onartu zenean (Galesko Gobernuak, 2017d). 2017ko Paper Zurian, *Striking the right balance: proposals for a Welsh Language Bill* (Oreka egokia aurkitzen: Galesaren Lege baterako proposamenak) izeneko dokumentuan, iradokizun hauek daude jasota:

- Galesko Hizkuntz Batzordea eratzea, galesa Gales guztian sustatzeko lana antolatu eta koordinatzeko.
- Jendeari, erakunde publikoei eta negozioei argitzea norengana jo dezaketen galesaren erabilera garatu nahi badute.
- Gales hiztunei informazio argi gehiago ematea, zerbitzu-erakundeek arreta galesez eskaini behar dietenaren inguruan, eta zerbitzu horien erabilera handitzeko lan egitea.
- Erakundeei zerbitzuak galesez emateko ahalmena garatzen laguntzea.



- Galesaren Estandarrak egiteko eta ezartzeko prozesuak modernizatzea, eta Estandarrak dituzten erakundeen ez-betetzeagatik aurkezten diren kekez arduratzeko burokrazia kentzea, jendeak irtenbide bat arin jasotzen duela bermatzeko.
- Galesko Gobernuak erakundeetan Estandarrak ezartzearen arduraduna dela zehaztea, arau eta betetzearen jakinarazpenak baliatuz, eta Galesko Hizkuntz Komisarioa Estandarrak betetzen direnaren kontrol eta indartze lanak egitearen arduraduna dela zehaztea.
- Egun legedian dauden mugak kentzea, Estandarrak edozein erakundetan jartzeko aukera egon dadin, betiere, hori egiteko eskumena Batzarrarena dela. (Galesko Gobernuak, 2017d).

2018ko urtarrilean, Eluned Morgan, Etengabeko Ikaskuntza eta Galesaren Ministroak, idatzizko adierazpen bat argitaratu zuen jaso ziren erantzun guztiekin batera. Haren hitzetan, Paper Zuriaren proposamenen gaineko txostenak erakusten zuen “Galesko Gobernuak gure Galesaren estrategiaren inguruan Batzarrari zein maiztasunekin berri eman behar dion galdetzen zenean izan ezik, gure proposamenek kontsultari erantzun ziotenen babesa jaso dute.” (Galesko Gobernuak, 2018). Proposamen nagusia Galesko Hizkuntz Komisarioaren zereginak sustapen funtzioak eta funtzio araugileak izango dituen Batzorde berri batek hartzea da.^{xvi}

Printzipioz, horrelako agentzia integratu batekin gaiak barnetik eramango lirateke, eta gobernuak galesarekin lotutako gaien erantzukizun osoa duela erakutsiko luke. Baina horrek hainbat interpretazio izan ditzake, erabakitzen den antolamenduaren arabera. Argudiatu daiteke Batzorde bat eratzeak Gobernuaren berehalako erantzukizuna eskualdatuko lukeela eta hori indargune bat eta ahulgune bat izan daiteke aldi berean, antzemateko eta kudeatzeko moduaren arabera.^{xvii}

Aurreratu egiten da proposatutako Legea Batzar Nazionalak 2018ko udazken amaieran aztertuko lukeela eta onespen maila handia izan beharko lukeela, beraz, hizkuntza araubide berria 2019 amaiera inguruan egongo litzateke indarrean. Hala eta guztiz ere, giro politikoa aldatuko balitz, edo 2021eko maiatzaren 6an bestelako agenda bat duen gobernu bat hautatuko balitz, helburu zehatz batzuk dituen agentzia independente eta langile batek egungo proposamenak gainditu ahal izango litzuke, eta Komisarioaren zereginen ahultze edo eranstearen aurkako gotorleku modukoa izan liteke.

10. Gobernuaren Politika Handinahia - “Cymraeg 2050”

Galesa sustatzeko azken erantzukizuna dutenak gu gara, jendea, baina modu jakin batzuetan jokatzeko baimena, inbertsioak, baliabideak, prestakuntza, estatus ofizialaren bermea gobernuaren eta haren agentzien erantzukizuna da, bai hizkuntzaren eremukoena bai beste eremuetakoena. Normalean, gobernuak jomuga diren hizkuntzak hizkuntz estrategia ofizialen baitan sustatzera bideratzen dituzte haien helburuak. Galesak etorkizunean izango duen paper eta erabileraren gaineko adierazpenik zehatzena gobernuaren Cymraeg 2050 estrategia da, 2050erako



milioi bat gales hiztun sortzeko helburua duena. Carwyn Jones Lehen Ministroak iragarri eta babestu zuen, estrategiari bultzada politikoa eta ibilbide sendoa emanez.^{xviii}

Horren aurrean, galde dezakegu ea zein mailatan den egingarria 2050erako milioi bat gales hiztunen helburua betetzea. Nola sortu da kopuru hori? Froga fidagarrietan oinarritzen da, edo propaganda politikoan eta gobernuaren eta hizkuntzaren aktibisten aldetik bete nahi den gurari batean?

Cymraeg 2050 estrategiak Sei Eremu Gako bereizten ditu: -

- Plangintza eta Hizkuntz Politika;
- Normalizazioa;
- Hezkuntza;
- Hizkuntz Transmisioa Familian eta Lantokian;
- Babes Azpiegitura;
- Legedi hobetua eta Hizkuntza Eskubide Sendoagoak.

Galde al dezakegu zeintzuk diren jomuga hiztunak? Hiztunak Galesen bizi direnak izango dira? Edo Erresuma Batuko beste lekuren batean bizi direnak ere?

Hiztun gisa aintzatetsia izateko 'hiztunen komunitatearen' eta atalase-mailaren definizioak desberdinak izango al dira 2050erako?

Hiztun Berri gehienek ingelesezko erduan ikasita jasoko dituzte galesezko gaitasunak.

Beraz, sistemak egungo hiztunen kopurua bikoiztu egingo du, gutxi gorabehera, komunikatzaileen sare birtual bat eratzeko helburuarekin, baina nork daki zenbat pertsona izango diren 2050erako modu eraginkorrean komunikatzeko eta harremanak izateko gai?



2050erako helburua bete ez bada, benetan axola al du? Izan ere, benetan axola duena galesa eguneroko bizitzako eremu zabal batean erabiltzea da, ez politikoki sinbolikoa den biztanle kopuru batek ustezko gaitasun jakin batzuk edukitzea. Beraz, aldaketa politiko esanguratsuena estrategia honen atzean dagoen bultzada da, galesak gizartean duen papera sendotzeko motibatuta dagoen indarra eskaintzen duena. Batzuk esango dute handinahitasun honen saiakera egiteak arrisku nabariak dakartzala hurrengo gobernuentzat ekintza programak ezarritako helburuak betetzen ez badituzte. Hortaz, garrantzitsua da galdetzea ea nola ebaluatuko diren Estrategia betearazteko ematen diren aurrerapausoak.

Hezkuntza sistemak inbertituko al du galesezko eredurako beharko diren irakasle berrietan eta orain arte nagusiki ingelesezko ereduak diren ikastetxeetako gales irakasleetan? Badakigu familia eta komunitatea hizkuntza modu sendoan birsortzeko gai ez direnez, erronka handia dela hau, eta batzuk esango dute, hezkuntza sistemari egotzi nahi zaion zama bat ere badela. Beraz, zeintzuk dira behar nagusiak? Hauek egin beharko lirateke: -

- galesezko eredu haurtzaindegi hornidura handitzea (MYM).
- elebidunak eta galesezko ereduak diren ikastetxeak irekitzea.
- Orain arte ingelesezko ereduak izan diren ikastetxeetan galesezko eredu irakaskuntza eraginkorragoa txertatzea.
- Helduen Hezkuntzarako eta Goi-Mailako Hezkuntzarako erakundeen lana babestea, langileen gaitasunen garapenaren eta curriculumaren diseinuari dagokionez, Estrategian gorai patzen diren benetako langile elebidunak sortzeko?

Cymraeg 2050ean dagoen pentsamolde berriaren ondorioz, aldatu egiten Estrategiaren iterazioan azpimarratzen dena, aurreko bi bertsioekin alderatzen badugu (alegia, *laith Pawb* eta *Cymraeg Byw:Cymraeg Fyw*-ekin); xehetasun gutxiago, neurtu behar diren emaitzak ez dira hain instrumentalak, eta jendea galesa kultura nagusiaren parte gisa onartzera animatzeko diskurtsoa konbentzigarriagoa da.

Baina nola gauzatuko dira Estrategiaren elementuen arteko harreman askoz argiago horiek?

Gauza jakina da Estrategiak, Gobernuarena izan arren, eta Gales Sailak pentsatutakoa izan arren, laguntzen duten Gobernuko gainerako sailekiko mendetasun handia duela, eta laguntzarik handiena ematen duena, hau da, Galesko bizitza osorako hezkuntza sistema, gakoa dela, baina ez dela Estrategiaren babesle oso handia.



Une honetan, Hezkuntza eta Gaitasunen Sailak ez du zehaztu nola abiaraziko duen Estrategia. Beraz, mekanismo nagusia behar bezala garatu gabe duen, eta lortu nahi diren helburuekin guztiz konprometitu gabe duen estrategia honekin lotutako arrisku politiko eta administratibo nahiko handia dago.

Nola eragiten dio horrek Estrategia gauzatzearen eraginkortasunari?

Interpretazioa

Hizkuntza gutxitu bat sustatzea gai politikoa da, baina ez litzateke norberarentzako komenigarritasun edo eszeptizismoaren ariketa bat izan behar. Ez litzateke ere gutxiengo linguistikoaren ardura bat izan behar.

Gehiengo demografikoak erabakigarriak dira honi dagokionez, azken finean, hautesleen gehiengoa eta zergadunen gehiengoa direla argudiatuko bailuke. Logikoa denez, biztanle horietatik ateratzen dira hiztun berriak, ikasleak, galesezko ereduko ikastetxeetako haurren gurasoak, eta, horrexegatik, estrategiek haien interesak aintzat hartu behar dituzte eta hizkuntza programak herri ondasun gisa duten balioaz konbentzitu beharko dituzte, interes talde berezi bat asetzeko ez direla erakutsiz.

Aipatu diren ekimen guztiek organikoki garatu den hizkuntzaren plangintza sistema baten ideia onak eta jardunbiderik onenak islatzen dituzte. Horietako askok galesaren erabilera eta erabiltzeko aukerak handitzeko helburuak bete badituzte ere, beste asko zatikatuak izan dira eta epe laburreko komenigarritasuna jasan dute, edo, gobernuaren programa zabalagoetan sartzen direnean, haien ikuspegi linguistikoa eta izaera berritzailea gal dezakete.

Ekimenak aldi behin ebaluatu egin dira, baina ez modu erregularrean eta ongi ezarritako antzeko metodologiekin. Ebaluazio ariketa gehienek egin diren jarduerak neurtzean eta deskribatzean, harreman orduetan, irakaskuntzaren kalitatean, erakundeen ikasketa eta kudeaketa estiloan jarri dute arreta, eta gardentasuna eta finantzen kontu ematea lehenetsun handiak izan dira gobernuarentzat, diruz lagundu dituen prozesu horietan inbertitutakoak balioa ematen duela frogatzeko helburuarekin.

Gobernuek, haien aldetik, helburuak, aurrekontuak eta emaitzak zehaztu ohi dituzte, haien ekintzak arrakastatsuek izan ote diren jakiteko. Diru-laguntzekiko mendekotasuna duten agentziak etengabe finantzatzea, sarritan, gobernuen helburu eta emaitzak asetzearekin lotuta dago. Dena den, azken aldiko Erresuma Batuko gobernuaren politiketan eta hainbat eremutan, jarrera aldatu egin da, bultzadaren teoria eta sinetsita egotea politiken garapenaren osagai garrantzitsuak dira eta emaitzak, orain, lortu nahi den maximoa izan ohi dira. Euskararekin edo



galesarekin lotuta egin daitezkeen galdera da, ea hizkuntza politika eta estrategiak beste politikekiko desberdinak diren, haien alderdi psikologikoei dagokienez. Izan ere, ikusi ditugu portaerak aldatzeko aurrera eraman diren kanpaina interbentzionista arrakastatsuak, osasunaren zaintzarako, alkoholaren eraginpean ez gidatzeko edo, oraingo bi adibide ematearren, elikagaietan eta freskagarrietan azukre kopurua murrizteko eta, itsasoan kutsadura murrizteko plastikozko bilgarriak ezabatzeko eskatzen duten kanpaina

Gehiago hausnartu eta esperimentatu behar da ingeniari-tza sozialean eta psikologia sozialean, interbentzionismoak hizkuntzaren erabileraren portaeran duen eragina aztertzeko. Agintari asko portaeraren aldaketa, bultzadaren teoria, eta abar aintzat hartu behar direnaz ohartzen badira ere, gutxi dira ideia horiek haien politika eta programetan modu esanguratsuan txertatzeko prestatuta daudenak.

Presazkoa da ere kontuan hartzea pertsona elebidunek eta eleaniztunek Helduentzako Hezkuntzan, Goi-mailako Hezkuntzan eta Y Coleg Cymraeg Cenedlaethol-en prestakuntzak zein leku duten. Ile-apaintzaileak, ingeniariak, sukaldariak, bulegoetako langileak izateak, eta haginlaritzan, kontabilitatean, medikuntzan eta osasungintza zerbitzuetan, zuzenbidean gertatzen diren berrikuntzek frogatu egiten dute, aukerak eta eskubideak izateko, kalitate handiko zerbitzuak eskaintzeko gai izan behar garela, eta inolako propaganda edo erretorika politikok ezingo du zerbitzu eskaintza on bat eskaini langileak behar bezala aukeratu eta prestatzen ez badira; bestela, engainu bat litzateke eta biztanleek, kalitate falta ikusita, hizkuntza hegemonikoa aukeratuko dute zerbitzu on bat jaso ahal izateko.

2018ko azaroan abiaraziko den programak osagarritasuna, malgutasuna, abiaraztea eta esparru komuna baliatuko dituela espero eta uste dut, elkarrekin bere kabuz sortzen den prozesu eraginkorra sor dadin, dagoeneko dauden jarduerari balioa erantsiz. Noski, beti gerta daiteke ekimen berriak ohiko bihurtzea eta bizitasun eta originaltasuna galtzea gobernuaren programa gisa ezartzen direnean. Horrela gertatuko balitz ere, soilik gobernuaren agentziek, haien botere eta baliabideekin, mantendu ditzakete horrelako epe luzeko ekimenak. Balioesten direlako eta funtzionatzen dutelako, gizartean txertatzen diren portaera aldatzea eta hizkuntza-aukeraketan ohitura onak bultzatzea lehentasuna izan behar da, zuen programak eragin iraunkorra izatea nahi baduzue, bestela, aldi baterako zerbitzu izango da, eta ez nahi duzuen eta jorratzen ari zareten ekarpena, euskarari bizitasuna emango diona.

Esker-ematea

Artikulu honetan erabili den landa-lan eta ikerketak Galesko Gobernuaren, Hizkuntza Plangintzarako Galesko Zentroaren eta Soillseren babesa du, eta egileak eskertu egin nahi du.



11. Bibliografia

Carlin, P., Mac Giolla Christ, D. eta Williams, C.H. (2015). Language ombudsmen, commissioners and regulators in Canada, Ireland and Wales. Cardiff: Cardiff University Language, Planning Research Unit.

Cunliffe, D., Morris, D. eta Prys, C. (2013a) Young bilinguals' language behaviour in Social Networking Sites: the use of Welsh on Facebook. *Journal of Computer-Mediated Communication*, 18 (3), 2013: 339-361.

Cunliffe, D., Morris, D. eta Prys, C. (2013b) Investigating the differential use of Welsh in young speakers' social networks: A comparison of communication in face-to-face settings, in electronic texts and on social networking sites. In Jones E.H.G. and Uribe-Jongbloed E. (Eds.) Social Media and Minority Languages: Convergence and the Creative Industries. Bristol: Multilingual Matters. 2013: 75-86.

Cunliffe, D. eta ap Dyfrig, R. (2013) The Welsh language on YouTube: Initial observations. In: Jones E.H.G. and Uribe-Jongbloed E. (Eds.) Social Media and Minority Languages: Convergence and the Creative Industries. Bristol: Multilingual Matters. 130-145.

Cunliffe, D., Pearson, N. eta Richards, S. (2010) E-commerce and Minority languages: a Welsh perspective. In Kelly-Holmes, H. and Mautner, G. (Eds.), Language and the Market, Palgrave Macmillan, Basingstoke, 135-147.

Deere, A. eta Cunliffe, D. (2009) Bilingual websites in jurisdictions requiring minority language use: effective implementation of policies and guidelines. In Pertot, S. Priestly, T. and Williams, C.H. (Eds.), Rights, Promotion and Integration Issues for Minority Languages in Europe, Palgrave, Basingstoke, 74-86.

Evas, J. (2013) The Welsh language in the digital age - Y Gymraeg yn yr Oes Ddigidol. [Working Paper]. META-NET White Paper Series, vol. 31. Berlin: META-NET.

Evas, J.C. eta Williams, C.H. (2011) 'Media and Software Development IT's not too difficult,' Irigoienazpikoa Mintegia, "El reto de las lenguas no hegemónicas o de nivel medio ante las sociedades de la información y del conocimiento y el impacto de las tecnologías de la información y la comunicación (TIC)" Andoain, Euskal Herria, 2011ko apirilaren 7a.

Evas, J. Mac Giolla Christ, D. Williams, C.H a Chwmni Sbectrwm, (2014) Adolygiad o Waith y Mentrau Iaith, Y Cynlluniau Gweithredu Iaith a Chynllun Hybu'r Gymraeg Aman Tawe, / A Review of the work of Mentrau Iaith, Language Action Plans and the Aman Tawe Language Promotion Scheme. [Technical Report]. Caerdydd/Cardiff: Llywodraeth Cymru/Welsh Government.



Evas, J. eta Cunliffe, D. (2016) Behavioural economics and minority language e-services - the case of Welsh. In Durham M. and Morris J. (Eds.) Sociolinguistics in Wales. Londres: Palgrave Macmillan. 61-91.

Government of Wales (2006) 'Twi' Raising Children Bilingually. Cardiff: Welsh Language Policy Unit.

Gruffudd, H. (2010) Mae dy Gymraeg di'n grét. End of Year Assessment. Abertawe: Cyngor Iaith Hafan.

Gruffudd, H. eta Morris, S. (2012) Canolfannau Cymraeg a Rhwydweithiau Cymdeithasol Oedolion sy'n dysgu'r Gymraeg. Crynodeb Gweithredol, Abertawe: Academi Hywel Teifi, Prifysgol Abertawe.

Jones, R.J., Cunliffe, D. eta Honeycutt, Z.R. (2013) Twitter and the Welsh Language. Journal of Multilingual and Multicultural Development, 34 (7), 653-671.

Mac Giolla Chríost, D. (2016). The Welsh Language Commissioner in Context. Cardiff: University of Wales Press.

Mac Giolla Chríost, Carlin, P. eta Williams, C.H. (2017) Preparing for a Welsh Language Bill pursuant to the Written Statement of 31 January 2017 by the Minister for Lifelong learning and the Welsh Language. Cardiff: Briefing Paper for Language Policy, Planning and Research Unit, Cardiff University.

Morris, D., Cunliffe, D. eta Prys, C. (2012) Social networks and minority language speakers: the use of social networking sites among young people. Sociolinguistic Studies, 6 (1), 1-20.

Thomas, H eta Williams, C.H (eds.) (2013) Parents, Personalities and Power, Cardiff: University of Wales Press, pp334.

Galesko Governua (2017a) Written Statement. Summary Report of Responses for a Call for Evidence: Preparing for a Welsh Language Bill. Cardiff: Galesko Governua.

Galesko Governua (2017b). A White Paper on Proposals for a New Welsh Language Bill. Cardiff: Galesko Governua.

Galesko Governua (2017c) Preparing for a Welsh Language Bill. Call for evidence: summary of responses. Cardiff: Galesko Governua.

Galesko Governua (2017d) Striking the Right Balance: Proposals for a Welsh Language Bill. Cardiff: Galesko Governua <https://beta.gov.wales/sites/default/files/consultations/2018-02/170807-overview-en.pdf>

udaltop

UDALETAKO EUSKARA
ZERBITZUEN TOPAKETAK
www.udaltop.eus



Williams, C.H. (2010) 'From Act to Action in Wales.' In D. Morris (ed.), Welsh in the Twenty-First Century, Cardiff: University of Wales Press. 36-60.

Williams, C.H. (2012) Foreword/Rhagair' i H. Gruffudd a S. Morris, Canolfannau Cymraeg a Rhwydweithiau Cymdeithasol Oedolion sy'n dysgu'r Gymraeg, Crynodeb Gweithredol, Abertawe:Academi Hywel Teifi, Prifysgol Abertawe.

Williams, C.H. (2013) Minority Language Promotion, Protection and Regulation, Basingstoke, Palgrave, pp. 343.

Williams, C.H. (2017) 'Wake me up in 2050. The Formulation of Language Policy in Wales,' Inaugural issue of Journal of Languages Society and Policy, Cambridge University: MEITS, pp. 1-7.

- i Ikus <https://www.gwynedd.llyw.cymru/en/residents/residents.aspx>
- ii <http://www.legislation.gov.uk/mwa/2011/1/contents/enacted>
- iii <http://www.legislation.gov.uk/wsi/2018/441/made>
- iv <http://www.comisiynyddygydraeg.cymru/English/Pages/Home.aspx>

v Inazio Loiolakoari egotzi izan zaion esaldi jesuita

vi <http://www.meithrin.cymru/cymraeg-i-blant/>

vii Hiru urteko kontratuaren balioa 118.593 £koa zen, (134.465) eta laith Cyf.ek zuzendu zuen Galesko Hego-mendebaldeko hainbat eremutan, 2012 eta 2015 bitartean.

viii https://www.iaith.cymru/uploads/general-uploads/adroddiad_terfynol_mdgdg_saesneg.pdf

ix <http://www.cles.org.uk/wp-content/uploads/2011/01/Area-Based-Initiatives-do-they-deliver.pdf>

x Mentrauek beste iturrien finantzaketa ere erakartzen dute, besteak beste, Toki Agintaritzena, Europako Batzordearena eta Loteria Nazionalarena. Gastuak konparatuz gero, Galesaren Kontseiluak, 2007-2008an 2.844.820 £ (3.224.441 €) bideratu zituen galesezko hezkuntza sustatzeko, 1.123.601 £ (1.273.521) Mudiad Ysgolion Meithrintzat (Galesezko Hartzaindegien Erakundea), 663.754 £ (752.384 €) Urdd Gobaith Cymruri (Galesko Gazteen Erakundea) eta 478.839 £ (542.738 €) Galezko Eisteddfod Nazionalari.

xi Adibidez, 2012an, Menter laith Sir Ddinbych-ek Ondarearen Loteriaren Finantzaketa lortu zuen Oroimenaren Museo baten proiektua garatzeagatik; ondoan dagoen Menter laith Conwy-k Landa ingurunea Garatzeko Planaren finantzaketa lortu zuen Konderriko Itzulpen zerbitzu bat eta Airean Zabaleko Jarduera Agentzia bat finantzatzeko, eta Nant Gwrtheyrn-eko Hizkuntza Zentro Nazionalan galesa ikasten zuten helduak diruz laguntzeko.

xii <http://www.swansea.ac.uk/media/Adroddiad%20llawn.pdf>

xiii Beste komunitate batzuetan erabili ziren eredu eta estrategiak aztertu ziren, batez ere Kataluniakoak eta Euskal Herriko Euskaltegiak.

xiv Ikuspegi hori Morris Swansea University-ri zor diot.

xv 'Canolfan Gymraeg' terminoak zentro mota jakin bati egiten dio erreferentzia: ikasten ari direnentzako eskolak komunitateko gales hiztunentzako jarduerekin konbinatzen dira, eta bestelako zerbitzuak ere eskaintzen dira, adibidez, galesezko liburudenda.

xvi Proposatutako Batzordeak 2012ko apirilean Galesaren Kontseiluak haren ondorengo gisa iradoki zuen ereduaren berrikuspenaren logika jarraitzen du, eta harekiko antza handia du.

xvii Ikuspegi hori Meirion. P. Jones-i zor diot, zeinak artikulu hau ere kritikatu zuen, eta horregatik eskerrak eman behar dizkiot.

xviii Hala eta guztiz ere, Carwyn Jonesek, 2018ko apirilean, urte amaieran kargua utziko zuela iragarri zuen. Horrek eragin handia izan dezake, edo agian ez, Estrategia Ofizialean; haren ondorengotzat hartzen dutenaren eta hizkuntzaren ardura izango duen Ministrotzat nor aukeratzen dutenaren mende egongo da.